

IRU TXULO 02.08.96

**auzoz auz**

**herrera**

Sporting  
estatuko  
liga  
jubenilean

**h**errerako Sporting  
Kirol Elkartek 95-96  
denboraldiko kirol  
balantzea egin du.

Euskal Liga Jubenilean  
dagoen taldea bultzatzea da  
helburuetako bat. Talde  
honek ligaren azpitxapelke-  
ta lortu du eta Estatu maila-  
ko Liga Jubenilerara igo da,  
ondorioz, Reala, Bilbo Ath-  
letic, Eibar eta abar izango  
ditu arerio. Lorpen hauek  
elkartearen historian lehen  
aldiz eskuratu dira.

Era berean, Ohorezko  
Kadete taldea nabarmendu  
behar da, ligan laugarren  
postuan bukatu du eta dato-  
rren denboraldian Euskal  
Kadete Ligan jokatu du,  
Euskadiko kadete talde  
nabarmenekin integratuz.